Bizkaia
euskal herria
museoa

# GERNIKA-LUMO

## Museoko aretoetako informazioa

IE

Logotipo honek ziurtatzen du eskuartean duzun liburuak IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat zehaztutako arauak jarraitzen dituzten materialak direla.

Dokumentu hau jatorrizko testuaren bertsio egokitua da.

# AURKIBIDEA

**orrialdea**


**BEHEKO SOLAIRUA . . . . . 4**

Ongi etorri . . . . . 6

1. gela: Eraikinaren historia . . . . . 7

2. gela: Paleolito garaiko artea . . . . . 13

3. gela: Bizitokia eta biztanleria . . . . . 19

4. gela: Kartografia . . . . . 23

**LEHEN SOLAIRUA . . . . . 28**

1. gela: Nafarroa . . . . . 30

2. gela: Iparraldea . . . . . 32

3. gela: Gipuzkoa . . . . . 36

4. gela: Araba . . . . . 40

5. gela: Bizkaia . . . . . 44

6. gela: Euskal Herria munduan . . . . . 48

7. gela: Foruak kentzea eta oraingo egoera . . . . . 52

**BIGARREN SOLAIRUA . . . . . 56**

1. gela: Herri kirolak . . . . . 57

2. gela: Mitoak eta sinesmenak . . . . . 61

3. gela: Dantzak . . . . . 64

4. gela: Musika akademikoa . . . . . 67

5. gela: Herri musika . . . . . 71

6. gela: Euskara . . . . . 74

7. gela: Euskal sukaldaritza . . . . . 77

Bizkaia
euskal herria
museoa

GERNIKA-LUMO

# BEHEKO SOLAIRUA

Bizkaia
euskal herria
museoa



Beheko solairua

# 1. GELA



## Ongi etorri

Euskal Herria Museoa Alegria jauregian dago.

1982an, Bizkaiko Foru Aldundiak
Alegria jauregia erosi zuen
eta museo izateko egokitu zuen.

Egokitzerakoan errespetatu dira:

- eraikinaren ezaugarri nagusiak
- eraikinaren historia,
  herriaren historiaren parte da eta.

Alegria jauregia, Euskal Herria Museoa,
zabalik dago publikoak gozatu dezan.

# 1. GELA

## Eraikinaren historia

Alegria jauregia eraikin aparta da.
1733an eraiki zen.

1937an Gerra Zibilean,
Gernikak bonbardaketa jasan zuen.

Jauregia dago egun horretan
bonbardaketatik kanpo geratu zen
Gernikako aldean.

Baina eraikina askoz zaharragoa da.
Eta Euskal Herriaren **bilakaerarekin** lotuta dago.

**Bilakaera:**
zerbait garatzea
edo eraldatzea,
hau da, forma
edo era aldatzea.

## Dorretxea

Lehen eraikina, **16. mende** hasierakoa da.
Defentsarako dorrea zen.

Euskal Erdi Aroan zehar,
**Oinaztarren** eta **Ganboatarren** artean
gertatu ziren borrokek
eragin zieten eraikin honi.

Alegria Jauregia Ibarguen familiarena zen.
Eta Ibarguen familia
Butroi-Muxika familiaren senide ziren.
Eta Butroi-Muxikatarrak
Bizkaiko Oinaztarren buru ziren.

Kanoi-zulo hau da jatorrizko eraikinetik
gelditzen den elementu militar bakarra.

Kanoi-zuloa zen harresietan egiten zen zuloa,
bertatik kanoiaren ahoa atera eta tiro egiteko.
Gainera, garai hartan, kanoiei
eta halako beste arma batzuei
trumoi deitzen zitzaien.

**16. mendea:**
mendeak erromatar zenbakiekin idazten dira, horrela: XVI. mendea.
Testu hauetan horrela idatzi ditugu: 16. mendea, erromatar zenbakiak pertsona batzuentzat ulertzeko zailak direlako.

**Oinaztarren eta Ganboatarren borrokak:**
Erdi Aroaren amaieran Euskal Herrian bandoen arteko gerrak gertatu ziren. Borroka horien helburua jauntxoek maila ekonomiko eta sozialari eustea zen.

## Sutea

1718an, **Felipe 5.ak** euskal **aduanak** lekuz aldatu zituen.

Ebro ibaitik kendu
eta itsas ertzera eraman zituen.
Horrek portuetara iristen ziren
merkataritzako produktuak garestitu zituen.

Hori dela eta, gizarteko errebolta gertatu zen.
Errebolta horri Matxinada deitzen zaio.
Urdaibaiko eskualdea, baita Gernika ere,
aldaketa hauengatik bereziki aztoratu zen.

Erreboltan parte hartu zutenek
Alegria Dorrea erre zuten,
barruko altzariak eta guzti.

Errebolta lasaitu zenean,
etxea berreraiki zen.

**Felipe 5.a:** erresuma batean Felipe izena zuen 5. erregea zela adierazten du zenbakiak. Normalean erromatar zenbakiekin idazten dira, horrela: Felipe V.a.

**Aduana:** bulego publikoa da. Kanpotik datozen produktuak aztertzen dira eta zergak kobratzen dira.

## Jauregi barrokoa

Sutearen ondoren etxe berria eraiki zuten,
Euskal Herriko jauregi barroko mota tipikoa da.

Garai horretako hiritarren
bizitzeko gustu berrietara egokitu zuten.
Horregatik ditu ezaugarri hauek:

- Eraikinak kubo forma du.
- Aurrealde dotorea du.
- Leiho zabalak ditu.

19. mendetik aurrera, eraikin hau
Montefuerte jauregi bezala ezagutzen da.
Jauregiko jabeek Montefuerte kondeen
titulua zutelako.

20. mende hasieran,
jabeen lehen abizena Allendesalazar zen.
Eta Allendesalazar armarria
ezarri zuten aurrealdean.
Horrek aurrealdearen oreka pixka bat hautsi zuen.

Armarri hori Gernikako beste etxe batetik
ekarri zuten.
Etxe hori “Etxe Margotua” izenez ezagutzen da.

## Jauregiko lorategia

1733. urtean bukatu zen jauregia berregiten
eta atzealdean lorategiak egin zituzten.
Jauregiari giro berdea, lasaia
eta baketsua ematen diote.

Lorategi batek estilo frantsesa
eta erromantikoa du,
eta besteak, estilo ingelesa.

Azken horrek gaur egun
Europako Herrien Parkea izena du
eta bertan, munduko kontinente guztietako
hainbat landare eta zuhaitz mota daude.
Chillida eta Mooreren eskulturak ere badaude.

# Gernika-Lumo gaur

**Bizkaiko Batzarrak** Behe Erdi Arotik
biltzen ziren Gernikan.
Baina 1366an Gernikari
**hiribildu** titulua eman zitzaion.
Beraz, hortik aurrera, eskubide
eta betebehar berriak izan zituen.

Erdi Aroko Gernikako hiribildutik kanpo zeuden:

- Alegria jauregia
  eta honen lorategi zaharra.
- Gernikako Arbola.
- Antiguoko baseliza, gaur egun
  Batzar Etxeak okupatzen duen lekuan zegoena.
- Santa Klara komentua zegoen zelaia.

Eraikin horiek balio handia duten
monumentuak dira.

Hiribildu gisa, Gernika mendeetan zehar
lasaia izan zen.
Baina 1937an, ia erabat suntsitu zuten
Gerra Zibileko Gernikako bonbardaketan.

Horren ondoren, urte gutxitan,
Gernika berpiztu zen, hau da, berriz sortu zen
eta industria-gune bihurtu zen.

Gaur egun, zerbitzu herria da batez ere
eta turismoa da nagusi.

**Bizkaiko Batzarrak:** legeak egiten dituzten organoak. Erdi Aroaren garaia baino lehenago sortu ziren. Europako sistema politiko demokratikoen lehenetakoa izan zen.

**Hiribildua:** errege-erregina edo jauntxo batek sortutako herria. Pribilegioak edo abantailak ematen zitzaizkien. Tokiko nobleziari boterea gutxitzeko, egonkortasuna emateko eta ekonomikoki hobetzeko sortu ziren.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Beheko solairua

# 2. GELA



# 2. GELA

## Paleolito garaiko artea

Santimamiñe, Altxerri eta Ekain euskal leizeetan Paleolitoko arte apartak daude. Horregatik, **UNESCOk** 2008an **Munduko Ondare** izendatu zituen.

Irudi horiek egiteko hauek erabili zituzten:

- Harri koxkorrak, hezurrak, adarrak... Hau da, mugitu daitezkeen elementuak.
- Leizeetatik kanpo dauden harri handiak eta paretak eta leizeetako hormak. Hau da, mugitu ezin direnak.

Leize horietan irudikatu zituzten:

- Batez ere animalia-mota hauek: zaldiak, bisonteak oreinak eta elur-oreinak. Batzuetan baita ere arrainak, hegaztiak, sugeak.....
- Giza irudi gutxi daude, eskuetako **aztarna** bakarrik.
- Asko daude ere: forma geometrikoak, puntu-serieak, lerroak eta orban informalak.

**UNESCO:**
Hezkuntza, zientzia eta kulturarako Nazio Batuen erakundea da. Herrien garapena lortu nahi du naturako baliabideen eta kulturaren bidez.

**Munduko ondarea:**
balio berezia duen lekua, hala nola, baso, mendi, uharte, eraikin edo hiriak. Leku horiek identifikatzea, babestea eta ezagutzera ematea du helburu.

**Aztarna:**
zerbaitek uzten duen edo gauza batetik gelditzen den seinalea.

# Paleolitoko artea Euskal Herrian

Paleolitoko artistak trebeak ziren
eskulturak, pinturak eta grabatuak egiten.

Piezak moldatzeko eta grabatzeko
**suharrizko** tresnak erabili zituzten.
Horrela, marra zabalagoak eta sakonagoak
egiten zituzten.

**Suharria:**
Historiaurrean tresnak egiteko eta sua pizteko erabiltzen zen harri mota.

Pinturarako hauek erabili zituzten:

- Burdinazko mineralak kolore gorrixkak lortzeko.
- Egur-ikatza edo manganeso oxidoa beltza lortzeko.
  Oso kolore gutxi zituzten margotzeko.

Bakarrik eskulturak, pinturak edo grabatuak
egiten zituzten batzuetan
eta bestetan, hiru teknika horiek elkartzen zituzten.

Batez ere animalien gorputzaren irudiak
egin zituzten.
Irudi horietan animaliak irudikatzen zituzten
animaliaren gorputzaren inguruko marraren
giharren eta ilearen bidez.

Batzuetan xehetasun gehiago zituzten:
muturra eta ahoa, oinak
eta gorputzeko atal gehiago.
Xehetasun horiek direla eta,
irudiek errealago dirudite.

Beste batzuetan xehetasun
eta gorputzeko atal gutxi zituzten.

Euskal Herriko lehen lan artistikoak dira:
Venta Laperraren hormako hartz grabatua
eta Isturitzeko zaldia.

## Artearen aztarna zaharrak Euskal Herrian

Euskal Herrian, mundu mailako
arte aztarna zaharrenetariko batzuk daude:

- Orain dela 40 mila urte inguru,
  Europara iritsi ziren
  lehen Homo sapiens-ekin lotuta daude.
  Adibidez, Altxerriko leizeko margo gorriak
  edo Isturitzeko leizeko pieza batzuk.

- Orain dela 15 mila urte,
  sortze artistiko izugarria egon zen Europan.
  Une horretan apaintzen dira
  lurrazpiko santutegi nagusiak.

  Batzuk grabatu eta pintura asko dituzte
  hormetan, hala nola Erberua, Altxerri,
  Ekain edo Santimamiñen,
  Beste batzuk ehundaka artelan
  hezurrez eta harriz eginda,
  hala nola Isturitzen.

## Lurraren adina

Lurraren gainaldea aldatzen ari da denbora guztian,
lur barnean mugimenduak daudelako.
Bizitza berritzen da beti,
beste forma batzuk hartzen ditu
eta ingurunera egokitzen da.

Baina gauza bakoitzak bere erritmoa du.
Lurrak 4.600 milioi urte ditu,
eta 4.000 milioi baino gehiago igaro dira
inolako bizimodurik gabe.

Duela 2 milioi urte bakarrik
gizakia lurrean agertu zela.
2 milioi urte oso denbora gutxi da
lurra existitzen denetik.

Afrikan sortu zen gizakien espeziea.
Askoz geroagokoak dira
Euskal Herrian dauden
gizakiaren aztarna zaharrenak.

Gizakiaren aroa deitzen diogu
orain bizi garen garaiari.
Baina gizakia aspalditik bizi da hemen.
Duela urte asko,
giza bizitzaren aztarnak agertu ziren
gaur egun Euskal Herria den lurralde honetan.

Bizkaia
euskal herria
museoa




# 3. GELA



# 3. GELA

## Bizitokia eta biztanleria

Mendeetan zehar landan,
etxeak funtzio sozial, ekonomiko, erlijioso
eta baita politikoa ere izan du.

Gaur egun ere, oraindik nortasuna ematen dio
bertan bizi den familiari.
Euskal Herrian esaten dugu
izena badu, bada.
hau da, izena duen guztia existitzen dela,

Etxea da familiari izena ematen diona.
Izan ere, horrela sortu dira
euskal abizen gehienak.

## Baserrien arkitektura

Euskal baserria, 15. mende bukaeran sortzen da.
Eraikin hau da:

- bizitzeko tokia
- dolarea: sagardoa sortzeko tokia
- ukuilua: abereak gordetzeko tokia,
  hala nola behiak, zaldiak...
- aletegia: aleak gordetzeko tokia,
  hala nola garia, artoa...
- lastategia: lastoa gordetzeko tokia.

Baserriaren arkitekturan ikusten da hori,
kutxa bat bezala delako,
elementu horiek guztiak biltzeko tokia.

Hainbat baserri mota daude
toki, garai, material, ahalmen ekonomiko,
jarduera nagusien arabera...
Baina baserri guztiek dute ezaugarri bera:
kalitate handiko eraikinak dira denak.

## Eliza, landako paisaia antolatzen duena

8. mendetik aurrera, agiriek diotenez elizek inguruko herrixketako komunitatea sortzen zutela.

Landako komunitate gehienek orain arte iraun dute.
Bertako elizak egokitzen joan dira bizitza aldatzen joan den ahala.

16. mendean, baserri eta eliza asko eraiki zituzten.
Eta horrela, herrixkak hazten hasi ziren.

Elizak egokitu zituzten
eta zurezko eraikin apartak egin zituzten harrizko **gangak** bezala eraikiak.

**Ganga:**
arku-formako eraikuntza, bi horma edo pilare batzuen arteko espazioa estaltzen duena.



Bizkaia
euskal herria
museoa



Beheko solairua

# 4. GELA



# 4. GELA

## Kartografia

Hasieran, **geografia eta kartografia,** zientzia militarrak ziren.

Euskal Herriari buruzko mapa
eta irudi asko daude.
Askotan elkarren aurka zeuden
bi estaturen artean egoteagatik.

Baita beste hauengatik ere:

- Itsasoko eta lurreko garraioa
- Gaztelako eta Frantziako
  printze eta printzesen arteko ezkontzak
- Merkataritzako gaien kontrola
- Jabetzen arteko mugei buruzko auziak...

**Geografia:**
Lur planetaren gainazala deskribatzea eta azaltzea helburu duen zientzia.

**Kartografia:**
mapak lantzen, marrazten eta argitaratzen dituen zientzia.

## Nabigatzeko tresnak

Nabigatzeko tresnak sortu ziren
honako hauetarako:

- non zeuden zehazteko
- abiadura ezagutzeko
- norabidea eta distantzia neurtzeko
- uraren sakonera neurtzeko
- mapak zehatz irakurtzeko
- fenomeno meteorologikoak behatzeko,
  hala nola ekaitzak.

14. mendean, **alturako nabigazioa**
asko garatu zen, Europan
Atlantiko aldean eta Mediterraneoan.
Bai nabigatzeko tresnak zabaldu zirelako,
bai eta kartografia eskolak garatu zirelako.

Aurkikuntza aro berri bat zetorren,
eta euskaldunek zuzenean eragin zuten.

**Alturako nabigazioa:** itsasoz egiten den nabigazioa, lurretik hain urruti, ez dela itsasontzitik lurra ikusten. Itsasontzia non dagoen jakiteko, izarren kokapena erabiltzen da.

## Itsas kartografia

Itsas kartak edo itsas mapak,
13. eta 17. mende bitartean
erabili ziren nabigatzeko.
Portulano izenez ezagutzen dira.

Itsasoa eta itsasoko ertzak adierazten zituzten
modu berezi batean.
Lurmutur, portu eta itsasadarrak
handitzen zituzten,
benetako tamaina aldatu arren,
marinelei informazio praktikoa emateko.

Euskal kostaldea 16. mendeaz geroztik dago
zehatz deskribatua eta kartografiatua,
hau da, mapetan agertzen da.
Hau horrela izan zen
euskal portuak toki onean zeudelako
Gaztela eta Ipar Europa lotzeko.

## Kartografia eskolak

18. mendetik aurrera,
kartografia asko aurreratu zen.
Horrela lortu ziren
mapa gero eta zehatzagoak,
bai muga-lerroak adierazteko,
bai elementuak kokatzeko
eta distantziak finkatzeko ere.

Mapak ere argiagoak dira,
informazio gehiago ematen dute
eta begien bistan ulergarriago dira.

Gainera, mapen edertasuna mantentzen da.
Hasieratik bilatu izan zen
mapak ederrak izan zitezela,
informazio hutsa ematea baino harago.

# LEHEN SOLAIRUA

Bizkaia
euskal herria
museoa



Lehen solairua

# 1. GELA



# 1. GELA

## Nafarroa

Nafarroako Erresuma Aritza familiaren inguruan sortu zen **9. mendearen** hasieran. Nafarroako Erresumak eragin oso handia izan zuen Erdi Aroan.

10. mendean Ximena **dinastiarekin** jarraitu zuen. Lur asko konkistatu zituen ezkontzen edo **aliantzen** bidez. Horrela, hegoalderantz zabaldu zen ordura arte arabiarrenak ziren lurraldeetara. Gaur egungo Aragoira eta Errioxara.

11. mendearen amaieratik aurrera Aragoi eta Gaztelaren aurka borrokak izan zituen eta horrek Erresumaren etorkizuna baldintzatu zuen. Izan ere, bi erresuma horiek hegoaldera jarraitzeko bidea moztu zioten.

Garai horretan, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Errioxa nafarrak izan ziren. Baina 12. mendean, Gaztelaren parte izatera pasa ziren.

**9. mendea:** mendeak erromatar zenbakiekin idazten dira, horrela: IX. mendea. Testu hauetan horrela idatzi ditugu: 9. mendea, erromatar zenbakiak pertsona batzuentzat ulertzeko zailak direlako.

**Dinastia:** herrialde jakin batean familia berekoak diren errege-erreginak.

**Aliantza:** estatuen edo agintarien arteko akordioa.

Lurralde horiek galdu ondoren
eta tronuan dinastia frantziarrak ezarri zirenez,
Nafarroako Erresumaren politika
Pirinioen iparraldera bideratu zen.

14. mendean Beaumont eta Agramontarren
leinu nobleek, hau da, familia **nobleen**
hainbat belaunaldik borrokak izan zituzten
eta erabat ahuldu zuten
Nafarroako Erresumaren boterea.

**Noblea:**
errege-erreginak emandako titulu edo eskubide bereziak dituen pertsona.

Fernando errege katolikoak egoera hori
aprobetxatu zuen eta 1512an,
Pirinioen hegoaldeko Nafarroako Erresumaren zatia
Gaztelako Erresumaren barruan sartu zuen.

Pirinioen iparraldeko Behe Nafarroa
Foix-ko dinastiaren esku geratu zen.

Gaztelak konkistatu ondoren,
Nafarroak bere foru arauak mantendu zituen.
Beraz, Nafarroako Gorteek eskubidea zuten
Gaztelako erregearen aginduak atzera botatzeko
Nafarroako Foru Nagusiaren aurka egiten bazuten.
Gauza bera gertatzen zen Aita Santuaren **buldekin**.

**Buldea:**
Aita santuaren legea edo pribilegioa.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Lehen solairua

# 2. GELA



# 2. GELA



## Iparraldea

Iparraldea, Lapurdi, Zuberoa
eta Behe Nafarroak osatzen dute.
14. mendean sortu eta finkatu zen.

Horrela mantendu zen 1512ra arte,
Gaztelak Nafarroako Erresumaren
Pirinioen hegoaldeko zatia konkistatu zuen arte.

8. eta 9. mendeetan zehar,
harremanak izan zituzten
Frantziako Erresuma Karolingioarekin
eta Nafarroako Erresumarekin.
Iparraldeko Gaskoinako nobleziak
familia harremanak zituelako
Nafarroako Erresumarekin.

12. mendearen erdialdean, Iparraldeak
Lehoi-Bihotzeko Rikardoren
Ingalaterrarekin bat egin zuen.
Hori dela eta, Iparraldeko erakundeak
eratzen hasi ziren.

Horrela antolatu ziren Iparraldeko lurraldeak:

- Lapurdik bere “**Biltzarra**” edo batzar mailako bilera zuen. Uztaritzen egiten zen.
- Zuberoak ere biltzarra zuen, “Silbiet” izenekoa. Bilerak Lextarren, Maulen egiten ziren.
- Behe Nafarroa **merindadea** zen, Nafarroako Erresuma osatzen zuten sei merindadeetako bat. Behe Nafarroa 1512an Nafarroako Erresumatik bereiztu zen, Nafarroako Erresuma Gaztelako Erresumak konkistatu zuenean. Behe Nafarroak Erresuma kategoriarekin jarraitu zuen 1572ra arte.

**Biltzarra:** erakunde edo pertsona talde batek arazoei buruz hitz egiteko eta erabakiak hartzeko aldiro egiten duen bilera.

**Merindadea:** lurralde bat zatitan banatzeko modua.

14. eta 15. mendeetan, Iparraldea
Akitaniako dukerri moduan zegoen antolatuta.
Horregatik, Ingalaterra, Frantzia,
Gaztela eta Nafarroa arteko
gatazketan sartuta egon zen.

16. mendetik aurrera,
Frantziako Estatu Orokorrak ezarri ziren
eta lurralde bakoitzak bere batzarra
eta ordezkariak zituen.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Lehen solairua

# 3. GELA



# 3. GELA

## Gipuzkoa

Gipuzkoa izena 1025ean
azaldu zen lehenengoz,
senior Garsia Açenariz de Ipuscua jaunak
eta bere emazte doña Galgak
egin zuten **dohaintza** batean.
Olazabalgo San Salbador monastegia
dohaintzan eman zioten
San Juan de la Peña monastegiari.

**Dohaintza:**
zerbait ematea
dirua edo ordainik
jaso gabe.

Emandako monastegi hori
bertako herritarren erreferente zen.
Beste bi monastegi erreferente ere bazeuden:
Hernaniko San Sebastian
eta Bergarako Arizetako San Pedro.

Oso denbora motzean
Gipuzkoako paisaia asko aldatu zen:
25 hiribildu sortu zirelako.
Hiribilduek ia Gipuzkoa osoa hartzen zuten.

Oñatiko Jaurerria ondoren integratu zen 1846an.

1199an, Donostia izan zen
sortu zen lehen hiribildua.
Garai hartan, Gipuzkoa
Nafarroako Erresumaren barruan zegoen.
Horrela Donostiatik, Nafarroako Erresuma
itsasora irten eta itsasotik sartu zitekeen.

Ondoren, Hondarribiko hiribildua sortu zen.

1200ean Gaztelak Gipuzkoa konkistatu zuen
eta hiribilduak sortzen jarraitu zuen:

- Kostaldean: Getaria, Zarautz, Mutriku...
- Oria ibaiaren haranean: Tolosa, Ordizia...

14. mendean, bertako **leinuen** arteko
borroka gogorra egon zen
eta egoera ez zen batere egonkorra.
Horregatik auzogune berrietan,
harresiak egin zituzten eta **gotortu** egin ziren,
adibidez Azpeitian, Azkoitian eta Eibarren.

Horrek esan nahi du inguruetako lurraldeak ere
askatu egin zirela eta leinuak nagusitu ziren.

**Leinua:**
familia bateko belaunaldiak, aurrekoen edo ondorengoen multzoa.

**Gotortu:**
defentsarako eraikinak eraiki leku batean, babesteko.

**Ahaide Nagusiak** atzerrira bidali zituzten,
eta Gipuzkoa bere burua antolatzen hasi zen.
Hori “Cuadernos de Ordenanzas de Hermandad”
izenekoen bidez egin zuten.
1375ean idatzi ziren lehenengo aldiz.

Hiribilduak Batzar Nagusietan biltzen ziren,
urtean bi aldiz.
16. mendean Diputazioa sortu zen,
Batzar Nagusien artean aritzeko.

**Ahaide Nagusiak:**
Erdi Aroko familia garrantzitsuenak. Jabetza, aberastasun eta ospe gehien zuten familiak ziren. Hau da, familia nobleen buruak.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Lehen solairua

# 4. GELA



# 4. GELA

## Araba

Arabako lurraldea, Gorbeia inguruko hegoaldeko mendietan zehar luzatzen zen. Errege asturiarrek lortu nahi zuten lurraldea. Horregatik, mendean hartzen saiatu ziren ezkontza edo gerra bidez.

Hori dela eta, Arabako nobleak 9. mendetik aurrera asturiarren senide bihurtu ziren.

Errioxa, **Kordobako emirren** espedizio militarren igarobide zen. Araba ez zegoen bide horren barruan 10. mende hasiera arte, Nafarroako Antso Gartzes I.a erregeak Araba mendean hartzea lortu zuen arte.

Handik aurrera, Araba Nafarroako Erresumaren barnean egon zen. 1199. urtean Gaztelako **Alfontso 8.** erregeari eman zitzaion arte.

**Kordobako Emirerria:** 756. eta 929. urteen artean, Iberiar penintsulako konkista musulmanaren ondoren egon zen probintzia musulmana zen. Bertako gobernadoreek *wali* edo *emir* titulua zuten.

**Alfontso 8.a:** erresuma batean Alfontso izena zuen 8. erregea zela adierazten du zenbakiak. Normalean erromatar zenbakiekin idazten dira, horrela: Alfontso VIII.a.

Garai hartan, hiri ugari sortu ziren.
**Foruak** zituzten eta horrela,
bertako biztanle guztiei pribilegioak,
frankiziak eta salbuespenak ematen zitzaizkien.
Hau da, biztanle horiek eskubide bereziak
zituzten produktuak saltzeko
eta arau orokorretatik kanpo zeuden.

**Forua:**
euskal lege zaharra.

Hiri horietatik kanpo zeuden herrixkak
oraindik ere jaunen esku zeuden.
Jaun horiek Arriagako Kofradiaren barruan
taldekatu ziren.
1332. urtean kofradia desegin zen
eta lur horiek Gaztelako Erresumara pasa ziren.

Ordudanik, herrixkak eta hiriak
maila handiagoko erakundetan antolatu ziren:

- Jaun feudalen aurrean defendatzeko.
- Landa eremuan ordena ezartzeko.
- Gaizkileez babesteko.

Erakunde horiei Ermandade deitzen zitzaien.
Ermandade horiek 1463. urtean
Arabako Ermandade Nagusi bihurtu ziren.
Eta erakunde honek Arabako lurraldearen
eremua definitzen lagundu zuen.

Horretarako zegoen epaile betearazlea,
edo Ahaldun Nagusia.
Ahaldun Nagusiaren postua
1476. urtean dagoeneko dokumentatuta dago.

Ermandadeen ordezkari guztiak
biltzarrean biltzen zirenean,
Batzar Nagusiak osatzen zituzten.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Lehen solairua

# 5. GELA



# 5. GELA

## Bizkaia

Bizkaia izena 9. mendearen amaieran
agertzen da lehenengoz,
Alfontso 3.aren Kroniketan.
Nerbioi eta Deba ibaien artean
zegoen lurraldea izendatzen zuen.

Bizkaiko lehenengo lurralde horri
**Bizkaiko jaunaren** familiari lotutako
beste lurralde batzuk elkartu zitzaizkion:

- 1211n, Durangaldea eta gero Enkarterriak.
  Baina bi merindadeek Batzarrak
  mantendu zituzten.
- 15. mendean, Orduña
- 18. mendean, Orozko izan zen azkena.

Kondairak esaten duenez,
**Bizkaiko Jaurerria** Jaun Zuriak sortu zuen.
Jaun Zuria atzerritar bat zen.
9. mendean, bizkaitarrek lurraldearen defentsa
gidatzeko aukeratu omen zuten.

**Bizkaia Jaurerria:**
11. mendetik 19.
mendera arte
Bizkaian eta inguruko
lurralde batzuetan
egon zen aginte
sistema.
Bertan, Bizkaiko
jaunak agintzen zuen.
Erdi Aroko gizarte
feudalaren
nekazaritza-
ekonomia
antolatzeko modua
izan zen.

Horren trukean baso, sagardi
eta beste aberastasun batzuk eman zizkioten.

Kondairaz aparte, ezagutzen den
Bizkaiko lehen jauna Iñigo López izan zen,
11. mende ia osoan bizi izan zena.

Nafarroako García erregearen **basailua** izan zen
eta, gero, Gaztelako Alfontso 6.arena.

**Basailua:**
jaun baten babes
eta menpean jartzen
zen pertsona askea
zerbitzu batzuen
truke.

Harotarren leinua hasi zuen.
Harotarren familia izan zen
Bizkaiko Jaurerria gobernatu zuena,
12. mendearen erdialdeko urte batzuetan izan ezik.

14. mendearen erdiaren inguruan,
Jaurerria Lara familiaren eskuetara pasa zen.

Ondoren, Trastamararrak izan ziren Bizkaiko jaun.
Familia horretako kide bat, on Joan infantea,
Gaztelako errege koroatu zuten,
Joan 2.a izenarekin.
Horrela, Bizkaiko jaurerria Gaztelako erresuman
integratu zen.

Hala ere, Jaurerriak bere erakundeak
eta foruak mantendu zituen.

Gaztelako errege-erreginak,
aldi berean Bizkaiko jaun-andreak ere ziren,
eta foru horiei zin egin behar zieten.

Forua lehenengo aldiz 1452an idatzi zen.
1526an aldatu zen
eta Foru Berria izena eman zitzaion.

Hiribilduetako eta elizateetako ordezkariak
Batzar Nagusietan biltzen ziren.
Batzarrak Gernikan egiten ziren.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Lehen solairua

# 6. GELA



# 6. GELA

## Euskal Herria munduan

Euskaldunak asko mugitu dira mendeetan zehar:

- Euskal Herria Iberiar Penintsularen eta Europako kontinentearen arteko pasalekua delako.
- Itsasoa daukalako.
- Herritarrak **ekintzaileak** direlako.

**Ekintzailea:**
lan, proiektu edo ekimen berriak hasteko eta ekiteko gaitasuna duena.

Testu zaharretan ere jasota dago euskaldunak Erromatarren Inperioaren hainbat tokitan zeudela.

Merkataritzagatik eta arrantzagatik euskaldun asko munduan ibiltzen ziren itsasoan zehar:

- Merkatari gisa Europa iparraldean eta Sevillan.
- Bakailao-arrantzale eta baleen ehiztari gisa Ipar Amerikako Ternuan eta Europako iparraldeko Islandian.

**Estatu modernoen** eraketan ere eginkizun handia izan zuten, militar, eskribau edo jurista gisa, **Austriarren gorteetan** eta Elizan.

**Estatu modernoak:** gaur egungo estatuak. Estatu modernoak entitate politikoak dira.

Mundu Berrira iritsi ondoren, euskaldunek zeregin garrantzitsua izan zuten, Gaztelako Erresumaren edo Frantziako erregearen zerbitzura.

**Austriarren gorteak:** izen horrekin ezagutzen da Espainian agindu zuen Habsburgo dinastia. 1516an Karlos 1.a errege izendatu zutenetik 1700ean Karlos 2.a oinorderik gabe hil zen arte.

Euskaldunek lortu zituztenak Europako estatu indartsuenek lortu zutena bezain garrantzitsuak izan ziren garai hartan. Hala nola:

- Konkistatzaileak Mexikon eta Perun.
- Kortsarioak Kariben edo Mediterraneoan.
- Misiolariak Asiako hego-ekialdean: adibidez, Filipinetan eta Japonian.
- Itsasgizonak Ozeano Pazifikoan.

Munduan barrena ibilitako
euskaldun pila baten izenak dakizkigu:

- Juan Sebastián Elkanok
  munduari lehenengo bira eman zion.
- Catalina de Erauso, militar moduan
  gizonez jantzita Hego-Ameriketan
  ibili zen moja.

19. mendean **euskal diasporaren** hasi zen:
milaka euskaldunek bizitza berria
bilatu zuten,
pobreziatik eta gerletatik ihes eginez
edo esperientzia berrien bila
beste kontinente batzuetan.

**Euskal diaspora:**
Euskal Herritik
kanpo, munduko
beste herrialde
batzuetan bizi diren
euskal komunitatea.
Kanpora joan ziren
pertsonek eta
ondorengoek ere
osatzen dute.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Lehen solairua

# 7. GELA



# 7. GELA

## Foruak kentzea eta oraingo egoera

Foruen aurkako lehen erasoak
**Borboi errege absolutistetatik** etorri ziren,
Frantzian eta Espainian.
Eta arlo politikoan eta akademikoan
adostuta ziren.

Ondoren, **Liberalismoak** foruen aurka
egin zuen borroka zaila izan zen.
Euskal Herrian ia mende bat iraun zuen:
1789an hasitako Frantziako Iraultzatik
eta 1876an Bigarren Gerra Karlista
amaitu zen arte.
1876an foruak kendu zituztenean.

Frantziako Iraultzagatik Iparraldean
foru sistema betiko kendu zen.

Beste euskal lurraldetan, prozesu hori
19. mendean hasi zen indar handiz.

**Borboi errege absolutistak:**
Borboi erregeak oso garrantzitsuak izan dira Europaren historian.
Dinastia 13. mendean jaio zen Frantzian, Luis I.arekin.
Ondoren, Espainiako errege-erreginak izan dira 1700etik aurrera.

**Liberalismoa:**
norbanakoaren askatasuna, legearen aurreko berdintasuna eta estatu-boterea mugatzea defendatzen duen sistema politiko eta ekonomikoa hartzen du.

1833an Lehen Gerra Karlista hasi zen.
Fernando 7.aren alaba Isabel 2.aren,
eta Fernando 7.aren anaia Karlosen
arteko borroka izan zen.
Europa osoan eragin zuen borroka izan zen,
baina, bereziki handia izan zen euskal lurraldean.
Hemen foruen gaia erantsi zitzaiolako.

1840an, gerra honen amaieran
foru sistemak aldaketak izan zituen.
Euskal Herriko politikariek, militarrek,
juristek eta historialariek
Foruak defendatu zituzten ia denek batera.
Nahiz eta alde politiko desberdinetakoak izan
ados zeuden defentsa horretan.

Liberalek eta karlistek esaten zuten
foruak defendatzen zituztenek eta karlistek
interes berak zituztela.
Baina foruak defendatzen zituztenak
hori horrela ez zela saiatu ziren.

1872an, karlistak bigarren aldiz saiatu ziren,
baina eten egin zuten
Alfontso 12.a tronura iritsi zenean.

1876an Foruak kentzeko legea egin zen.
Politikoki mugimendu handia piztu zen,
Foruzaletasunak oso indar handia zuen eta.

Hori dela eta, 1878an Ekonomia Itunen sistema
aldi baterako sortu zen.
Azkenean, sistema hori tresna bihurtu zen
Aldundien eta Espainiar estatuaren arteko
ekonomiako eta erakundeen arautzea egiteko.

# BIGARREN SOLAIRUA

Bizkaia
euskal herria
museoa



Bigarren solairua

# 1. GELA



Euskal herritarrak bere ohiturez harro daude:

- Euskara, bertako hizkuntza, milaka urtetan gorde du.
- Lanak kirol bihurtu ditu.
- **Arbasoen** errituei mantendu ditu.
- Antzinako janariak egiten jarraitzen du.

**Arbasoak:** gure aitona-amonen aurretik bizi izan diren pertsona guztiak.

Gainera, ohitura horiekin jarraitzen da euskal herrietan.

Herriarekiko eta bizimoduarekiko maitasuna urtero bizi diren momentu bakoitzarekin lotuta dago: ospakizun, abesti, dantza bakoitzarekin.

# 1. GELA



## Herri kirolak

Herri kirolak lurreko eta itsasoko lanetatik sortu ziren.
Arrantzaleak, nekazariak, egurgileak eta artzainak **lehian aritzen** ziren.
Azkarrena edo indartsuena nor zen erakutsi nahi baitzuten.

**Lehian aritzea:** besteak gainditzeko ahalegin handia egitea.

**Erronkak** eta apustuak dibertsioaren parte ziren ere.

**Erronka:** betetzeko helburutzat proposatzen den zerbait zaila.

Hortik sortu ziren gero mota askotako lehiaketak:

Aizkolariak

Traineru-estropadak

Harri-jasotzaileak

Gaur egun, batzuk profesional bihurtu dira,
adibidez, estropadak, pilota edo sokatira.
Ikusle asko izaten dituzte
eta dirutza handia jokatzen da bertan.

Pilotak ospe handia du
eta mota asko daude, adibidez:



Esku-pilota



Pala



Erremontea

Herri guztiek dute frontoia.
Horrek herritar askok pilotarako duten
zaletasuna edo interesa erakusten du.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Bigarren solairua

# 2. GELA



# 2. GELA

## Mitoak eta sinesmenak

Euskal Herriko mito eta kondaira zaharrenek izaki boteretsuen istorioak kontatzen dituzte. Izaki horiek natura adierazten zuten.

Euskal mitologiako izaki batzuk dira:

- Mari, tximistaren eta euriaren jainkosa.
- Sugaar, dragoia.
- Basajaun eta Basandere, basoko jaun-andreak.
- Lamiak, emakume eta animalia itxura elkartzen dituzten izakiak.
- Tartalo, begi bakarra duen izaki erraldoia.

Haitzulo eta basoetan bizi dira, eta euria edo eguna iluntzea bezalako naturako fenomenoak sortzen dituzte, hala nola tximistak, ekaitzak, ortzadarra...

Kristau erlijioa Euskal Herrira heldu zenean,
naturako izaki horien sinesmenak
erlijio berriarekin nahastu ziren.

Eta ospakizun eta erritu asko aldatu egin ziren:

- San Migelek dragoia garaitu zuen.
- San Martinek basajaunak garaitu zituen.
- Olentzero ikazkina menditik dator
  Gabonak ospatzera.
- San Joan gauean
  suaren eta arbolaren inguruan
  udako solstizioa ospatzen da,
  hau da, uda hasten dela.

Ospakizun horiek bizitzaren zikloa
adierazten dute.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Bigarren solairua

# 3. GELA



# 3. GELA

## Dantzak

Euskal jai guztietan egiten da dantza.
Euskal dantza oso antzinakoa da
eta dantza mota asko dauzkagu.

Euskal Herriko ohiturak
oso ondo ikusten dira dantzan,
urtetan gorde diren pausoen
**sinkronizazio**, ordena eta diziplinarengatik.

Jantziek eta tresnek (makilak, uztaiak...)
dantza aberasten dute
eta dantzarien mugimenduak
sinbolikoago egiten dituzte.

**Sinkronizazio:**
bi gauza aldi berean egitea edo gertatzea, kasu honetan musika eta dantzarako gorputzeko mugimenduak.

Hainbat dantza mota daude:

- Tradizioa adierazten dutenak: gizarte-dantzak, erritu-dantzak, makil dantzak, arku dantzak...
- Nekazaritza dantzak: urtaroak, nekazaritzako zikloak eta bizitzako gizarte-aldaketak markatzen dituzte.
- Erlijio dantzak: korpusak eta igande arratsaldeko zortzikoak eta aurresku ospetsuak.
- Militar jatorria dutenak: ezpata-dantza ikusgarria.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Bigarren solairua

# 4. GELA



# 4. GELA

## Musika akademikoa

Euskal Herrian lehen monasterioak
agertu zirenetik
musika akademikoa ere hasi zen.
Eta musika akademikoa eta herri musika
elkarrekin bizi izan dira handik aurrera.

Musika akademikoak egitura eta teoriak
jarraitzen ditu eta idatzizko musika
erabiltzen du.

Barrokoan, 17. eta **18. mendeetan**,
Baiona eta Gasteizko katedraletan
edo Arantzazuko santutegietan
organoari laguntzeko,
hari eta haize instrumentuak ere
erabiltzen hasi ziren.

**18. mendea:**
mendeak erromatar zenbakiekin idazten dira, horrela: XVIII. mendea.
Testu hauetan horrela idatzi ditugu: 18. mendea, erromatar zenbakiak pertsona batzuentzat ulertzeko zailak direlako.

Horregatik musika-kaperak
egokitu behar izan zituzten.

Kaperak sormen musikaleko toki apartak izan dira.
Gainera, Europako hainbat musika estiloren
**bilakaera** bizi izan dute.

**Bilakaera:**
zerbait garatzea
edo eraldatzea,
hau da, forma
edo era aldatzea.

19. mendean euskal musikari nagusiak jaio ziren.

19. mendearen hasierakoak dira:

- Juan Crisóstomo Arriaga,
  11 urte zituela konposatu zuen lehen lana.
- Hilarión Eslava, gaur egun ezaguna den
  solfeo-metodoa asmatu zuen.
- Pablo Sarasate bezala,
  Pariseko edo Berlineko kontserbatorioetan
  musika ikasi zuten euskal gazteak.

19. mendearen bukaeran, Ziburun jaio zen
Maurice Ravel musikari ospetsua.
Boleroak egin zuen, mundu osoan ezaguna,
eta musikan oso berritzailea izan zen Ravel.

Honen ondoren garai horretan,
musikarien belaunaldi berria agertu zen:
Jesús Guridi, Jose María Usandizaga,
Aita Donostia eta Pablo Sorozábal.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Bigarren solairua

# 5. GELA



# 5. GELA

## Herri musika

Herri musika herrian tradizioz sortu eta jo dena da.
Euskal Herriko herri musika aberatsa da
eta gaur egunera arte transmititu da
gelditu gabe.

Abestirik zaharrenak eta lehenengo txistulariak
Erdi Arokoak izan ziren.
Doinuak galdu dira,
baina letrak gorde egin dira.

> Txistua instrumentu ospetsuena da.
> Eta txistuari beti danbolinak
> laguntzen dio.
> Udalek ere kontratatu ohi dituzte
> jai instituzionalak ospatzeko.

> Pirinioetan txirula jotzen da,
> eta atabalak laguntzen dio.

Arabako hegoaldean eta Nafarroan
gaitak eta dultzainak jotzen dira.

Alboka toki batzuetan bakarrik
jotzen zen,
normalean panderoak lagunduta.

19. mendean trikitixa ezaguna egin zen.
Trikitixa eskusoinu txiki bat da
eta gaur egun panderoak
laguntzen dio ere.

Txalapartaren kasuan,
agian talde-lanak egiten ari zirenean
jai-giroan sortu zen.
Adibidez, dolarean sagardoa egiteko
sagarra zapaltzen zenean.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Bigarren solairua

# 6. GELA



# 6. GELA



## Euskara

Euskara euskaldunen hizkuntza da.
Euskal Herria deitzen diote lurraldeari,
hau da, euskararen herria.

Euskaldunek euren buruari “euskaldun”
deitzen diote, hau da, euskara duena.
Beraz, hizkuntzak bakarrik bereizten ditu
bertako herritarrak.

Euskara bertakoa da
eta ez dator munduko
beste hizkuntz familia batetik.

Lurralde honetan jaio zen duela milaka urte.
Eta Europako hizkuntzarik zaharrena da,
latinak ez zuen menperatu
eta beraz, ez da galdu.

Gaur egun, euskarak
miloi bat hiztun baino gehiago ditu,
eta hainbat **euskalki** ditu.

**Euskalkia:**
dialektoa, hizkuntza berean lurralde bakoitzean hitz egiten den berezko hizkera.

Euskarazko lehen idatziak agertu ziren
erromatar hilarrietan edo Erdi Aroko agirietan.
Hitz gutxi batzuk ziren
eta ahozko euskararen antzekoak dira.

Baina 16. mendetik hona,
euskarazko literatura handitzen joan da,
baita azterlan eta gramatikak ere.

Gainera, 1918. urtean sortu zen
Euskaltzaindia, euskararen akademia,
euskarari babesa emateko.

Bizkaia
euskal herria
museoa



Bigarren solairua

# 7. GELA



# 7. GELA

## Euskal sukaldaritza

Euskal sukaldaritza tradizionala
Euskal Herriko jakietan oinarritzen da.
Jaki horietako batzuk bertakoak dira
eta beste batzuk urrunetik ekarri ziren aspaldi.
Euskal Herrian finkatu ziren
eta ezaugarri propioak dituzte orain.

Azoketan eta merkatuetan
lurraldeko jakirik onenak lortzen dira,
errezetako osagai bakoitzaren
kalitatea zaintzen baitute.

Euskal Herriko sukaldaritzako kultura
txokoetan eta elkarte gastronomikoetan
ikusten da.

Bertan lagun-taldeak elkartzen dira
sukaldean aritzeko eta prestatutakoa jateko.
Eta edateko, hartzen dituzte ardoa, sagardoa
eta txakolina, hau da, kostaldeko ardoa.

Kofradiak ere existitzen dira,
bertako jakiak ezagutzera ematen dituztenak:
sagardoa, indabak, gazta...

1976. urtetik aurrera,
Euskal Sukaldaritza Berria sortu zen.
Talde horretako sukaldariek
betiko platera tradizionalak
aldatu eta sormena erabiliz
plater berriak sortu dituzte.

Euskal sukaldari horiek oso ezagunak dira
eta euskal sukaldaritzari mundu guztian
ospe handia eman diote.

Erabilitako sinbolo piktografikoak Aragoiko Gobernuarenak dira.
Sergio Palaok sortu ditu ARASAACentzat (http://www.arasaac.org).
Creative Commons BY-NC-SA lizentziapean banatzen ditu.

Bizkaia
euskal herria
museoa

# GERNIKA-LUMO

IE